

“Herriarrak geroago eta tokiko informazio gehiago kontsumitzen ari diren sasoi honetan, diru iturri propioak gehiago murriztu zaizkigu”

Jone Guenetxea Arrinda

ANBOTOk zuzendaria eta Tokikomeko presidentea • 9



Zero fasea Durangaldean

Durangaldea | “Normaltasun berrira” bidean, zero fasea abiatu zen astelehenean. Segurtasun neurri zorrotzekin hainbat zerbitzu zabaldu zituzten. Komertzio askotan zorarena izan zen. Astelehenean, Jesus Ignacio Gomez Durangoko ile-apaintzaileak 110 bat dei jaso zituen ordua hartzeko. Bestalde, Irene Loizate triatletak eztabaida izan zuen udaltzainekin eta herritarren marmarrak entzun behar izan zituen, profesionala den aldetik entrenatzera irteteko baimena duen arren. Abadiñoko Zaindaz fisioterapia zentroa ere astelehenean zabaldu zuten, segurtasun neurri zorrotzekin, Martiñe Usabelek esan duenez. Hiru behargin hauek lanerako itzulera zelan bizi izan duten azaldu diote ANBOTOr. Aurreikuspenak betetzen badira, datorren astean lehenengo fasea hasiko da. Tabernen txanda izango da. • 4 eta 12

Matienako jaietako bertso saioa 'anboto.org' atarian ikusgai

Abadiño • Maialen Lujanbio, Nerea Ibarzabal, Igor Elortza eta Txaber Altube arituko dira bertsoetan, barikuan. Saioa ANBOToren webgunean, 'Bertsoa.eus' atarian eta udalaren jaietako webgunean emitituko da • 10

DENA PREST DAUKAGU GURE LANGILE ETA BEZEROEN OSASUNA ZAINTEKO

MAIATZAREN 11-TIK AURRERA DENDA ZABALIK, DESKONTU ETA OPARI BEREZIEKIN

Deitu 946 526 195 telefonora hitz ordua hartzeko:

Info@schmidt-abadiano.com

SCHMIDT

Murueta Auzoa z/g
Eroski Merkatal Zentroa
48220 Abadiño
www.homedesign.schmidt

> Batu zaitez geurera hemen



LOURDESKO AMA IKASTETXEA

ETORRI GU EZAGUTZERA

Bisita pertsonalizatuak

harrera@lourdeskoama.eus
www.lourdeskoama.eus 100
94 682 00 56



“Senegalen neurri asko hartu dituzte eta nahiko ondo kontrolatzen ari dira egoera”

Itziar Larrinaga abadiñarra eta bere familia etxera noiz itzuliko zain daude Senegalgo iparraldean, San Luis inguruan



Itziar Larrinaga.



Manex Itziarren semea Keur Talibe Ndar elkarteko kideekin.

SENEGAL • JONE GUENETXEA

Koronabirusaren krisiak Senegalen harrapatu zituen Itziar Larrinaga eta bere familia. Afrikako herrialde horretan egoera hau zelan bizi duten kontatu dio ANBOTOr.

Zelan zaudete zu eta zure familia?

Nahiko lasai gaude eta egoera noiz hobetuko den zain, etxera bueltatu ahal izateko. Gure asmoa lehenago itzultzea zen, baina mugak itxita daude oraingoz.

Koronabirusak zelako eragina izan du zuek zaudeten zonalde horretan?

Oso presente dagoen kontua da eta egunotan gai hori baino ez da entzuten hedabideetan. Senegalen neurri asko hartu dituzte eta nahiko ondo kontrolatzen ari dira egoera. Esaterako, kalera irteteko derrigorra da maskara ipintzea, eta polizia isuna ipintzen die maskararik barik dabilzanei. Horrez gainera, zaborrontzi kopurua hirukoiztu egin dute. Hemen zein Afrika osoan, oso gatz

da erabateko konfinamendua mantentzea. Jendea egunero irteten da kalera janaria erostera edo saltzera. Baina kalera irteteko orduak mugatuta ditugu: 20:00etatik 06:00etara denok etxean egon behar dugu. Etxetik ahalik eta gutxien irteteko gomendatzen dute eta normalean baino askoz ere jende gutxiago ikusten da kalean.

Senegalen ume talibeei laguntzen dien elkarte bat dago eta zuk eurekin hartu-emaña duzu. Nortzuk dira ume talibeak?

Talibeak Korana ikasten duten umeak dira. Gambiatik, Gineatik, Senegal bertatik eta beste herrialde batzuetatik heltzen dira, euren familiek bidalita. Daara izeneko etxe batzuetan batzen dira eta marabout izeneko irakasleekin Korana ikasten dute. Bizimodu gogorra daramate. Maraboutek dirua edo janaria eskatzen dizkiete irakastearen truke eta umeak goizean goizetik kalean ibiltzen dira

potetxo bategaz janari eta diru bila. Eta irakasleari batutakoa nahikoa ez dela iruditzen bazaio, tratatu txarra jasotzen dute. Horrelako 9.000 ume inguru daude hemen. Koronabirusa dela-eta 20:00etarako etxeratzeke agindua dagoenez, umeek sarritan ez dute afaltzen.

“**Kalera irteteko derrigorra da maskara ipintzea; isuna ipintzen diete maskararik barik dabilzanei**”

Ni bizi naizen etxeko jendea ume horiei laguntzeko elkarte batean dago eta diru bilketa bat egin dute. Batutako diruagaz janaria erosi, taldeka afariak prestatu eta Daaretara eramaten dituzte, umeek zer

afaldu izan dezaten. Keur Talibe Ndar deitzen da elkarte. Koronabirusa dela-eta, zeregin honetan zentratuta dabilza, baina, bestela, modu askotara laguntzen diete umei. Esaterako, kalean egindako zauriak osatzen. Horrez gainera, Daara batzuk ez daude ondo, eta umeek zoru bustian eta lokaztuan lo egiten dutenez, txabolak egiten dizkiete. Hezkuntzara bideratutako proiektuak ere garatzen dituzte. Izan ere, umeek Korana ikasten dute, bai, baina ez dakite idazten eta irakurtzen. Frantsesa ere ez dute ikasten. Beraz, ikastaroak antolatzen dizkiete hizkuntza ikasteko eta lan mundurako sarbidea errazteko; besteak beste, argazkilaritza, alfabetizazioa, frantses eskolak, birziklapenaren ingurukoak,

Hemendik zelan lagundu daiteke?

Diru ekarpenak egin daitezke eta diru hori umei afariak prestatzeko erabiliko dute (www.keurtalibendar.org).

Lau hankako mahaia

Mireia Elkoriribe
EAJ



Normaltasun barria

Azken egunetan, behin eta berriro entzun dot "normaltasun barria"-z berba egiten, eta neure buruari galdetu deutsot zer izango ote dan. "Normaltasuna" baina "barria". Bueno, ba barria bada, diseinatzeke unean gagoz, ezta? Orain arte gertatutakoaz ikasi eta marraztu daigun alkarregaz gure normaltasun barria izango dana.

Goizean Durangotik korrika egiten, nire normaltasun barri ideala imajinatu dot. Oinezkook eta bizikletok kaleak irabazten doguz. Espaloiak zabalagoak dira. Kotxe oso gutxi ikusten da Durango erditik eta oso astiro doaz. Bizikletan goazen ume, emakume, adineko eta pertsona guztiak segurtasunez gabiltza.

"Goizean Durangotik korrika egiten, nire normaltasun barri ideala imajinatu dot"

Erosketak egitera goazenean, oinez eta herriko dendatik txikietan noski, auzokideekin eta ezagunekin topo egiten dogu eta alkarri zelan gauden galdetzeko aukera gehiago daukagu. Durangoko udaltzainak ere oinez eta bizikletan doaz, jendea kaletik agurtu eta euren beharrezane erantzuten deuseen bitartean.

Durangoren xarmaz, merkataritzaz eta bizitzaz disfrutatzen dogu, pasiatzen, kirola edo erosketak egiten, kafe bat hartzen, oinez edo bizikletagaz, zaratarik eta jendetzarik barik.

Seguraski aurten ez dogu ekitaldi handirik izango eta ez gara oporretan urrin joango. Agian ez dogu behar... Agian, beste gauza bat tokatzen da. Agian, familiak, benetako lagunez, bertoko merkataritza eta ostalaritzaz, gauza txikiez, kalitatezko denboraz, hurbiltasunaz, musikaz, irakurtzeaz, etxeko berotasunaz eta bizitzaz beste modu baten gozatzeko sasoia heldu jaku, normaltasun barrian.

“Banatzaile batek esan dit bera Gabonetan baino gehiago banatzen dabilela”

Eneko Abasolo iurretarra banatzailea da; eurena funtsezko lana da eta konfinamenduan gogor behar egitea tokatu zaie



Eneko Abasolo
Txabarri
Banatzailea
Iurreta | 1976

IURRETA • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Koronabirusak eragindako krisialdi hau hasi zenean, Espainiako Gobernuak funtsezkotzat jo zituen hainbat lanbide, eta banatzaileena izan zen horietariko bat. Ordutik hona, banaketako beharginak gelditu barik dabilta beharrean. Eneko Abasolo iurretarra da horietariko bat.

Zelan bizi ditu egun hauek banaketako langile batek?

Arraro, oso arraro. Hasieran oinarrizko gauzak baino ez genituela banatuko uste genuen; hau da, beharrezko gauzak bakarrik. Baina gero konturatu gara beharrezkoak ez diren hainbat gauza ere bagabiltzala banatzen. Gainera, jendea eskari pila egiten dabil eta ez genuen hori itxaroten.

Normalean baino eskari gehiago dituzue?

Bai, eta, batez ere, Aste Santu osteko astean. Egun horietan eskari mordoan izan genituen. Izugarri igarri genuen Aste Santuko bost egun

horietan jendea etxean egon zela. Beste banatzaile batzuekin berba egiten egon naiz, eta orokorrean eskariak asko gehitu zaizkigula ikusi dugu. Batek esan dit bera Gabonetan baino gehiago banatzen dabilela.

“Gure enpresan lehenengo egunetik betetzen ditugu segurtasun neurri guztiak”

Guk enpresekin lan egiten dugu gehienbat, eta, egia esan, enpresak itxita egon ziren hamabost egun horietan jaitsi egin zitzaigun enpresetako lana, baina partikularrena asko igo zitzaigun.

Zelako baldintzatan zabiltzate beharrean?

Ni ez nago kexatzeko moduan. Guk lehenengo egunetik izan ditugu maskarak eta eskularruak, eta enpresan ere lehenengo egunetik betetzen ditugu segurtasun neurriak. Lantokira binaka sartzen gara eta gure artean beharrezkoak diren distantziak uzten ditugu.

Eta etxerik etxe zabiltzatenean?

Hau guzti hau hasi zenean, etxetara ez igotzea erabaki genuen, eta atariraino baino ez gara joaten. Jendea atarira bajatzen da paketearen bila, eta, bestela, igogailuan bidaltzen dugu. Horrez gainera, paketea jasotzean eskuz ordaintzeko aukera zegoen lehen, baina hori kentzea eskatu genuen eta kasu egin digute.

Zer da konfinamendu honetan gehien banatu duzuen?

Pintura pila bat banatu ditut, eta liburuak ere asko. Badirudi mundu guztia etxea pintatzen dabilela. Bestalde, farmazietarako ere hainbat produktu banatu ditugu, farmaziekin lan egiten dugu eta.

Baduzu anekdotarik kontatzeko?

Behin, banaketan nenbilela, txirrina jo eta bere paketea ekartzera nentorrela esan nion emakume bati. Errieta egin zidan, ea zer delata eraman nion paketea. Erosi egin zuelako erantzun nion, eta neure lana egiten baino ez nenbilela, paketea banatzen. Ez zuen paketea jaso gura izan, eta, azkenean, itzuli egin behar izan nuen.

**AURREMATRIKULA ZABALIK
BATXILERGOA 2020-2021**



Matrikula zaitez

www.durangojesuitak.org • 94 681 00 50
sanjose@durangojesuitak.org



jsu
Jesuitak

Durango

Biharko ametsak, gaurko erronkak

Q

94 681 00 50
sanjose@durangojesuitak.org

Ziurgabetasunari eta kezkei aurre eginda, dendariak komertzioak zabaldu dituzte

Durungaldeko komertzio asko herritarren zerbitzura ipini dira. Aurretiazko hitzordua eta beharrezko babes neurriak hartuta eginahal guztiak egiten ari dira lanari berrekiteko

DATUAK • EKAITZ HERRERA

Astiro-astiro, baina aurrera. Zalan-tza asko izan arren, Durungaldeko komertzio txiki batzuek lanari berrekin diote. "Egia esan, zalan-tza askogaz lan egin dut asteon", azaldu du Izaskun Agirrek. Elorrioko Merkatarien Elkarteko presidentea izateaz gainera, Izara arropa dendaren jabea ere bada. Barruko arropa eta etxerako arropa saltzen ditu. "Elorrioko dendariak euren dendetara bueltatu ziren astelehenean. Negozioak erdi zabalik eta erdi zarratuta izan ditugu, zeozelan esateko. Aurretiazko hitzordua ipinita aritu gara, baina horrek ondo zelan funtzionatzen zuen zehatz jakin barik, ziurgabetasun handiagaz. Adibidez, bezero batek arropa probatzen badu eta gustura gelditzen

ez bada, probatutako arropa hori poltsa batean sartu eta biltegiari isolatuta mantendu behar dut 48 orduan. Asteak aurrera egin ahala egoerara ohitzen joan gara, baina ez da erraza izaten ari", aitortu du

"Bezeroak probatutako arropa poltsa batean sartu eta 48 orduan isolatuta eduki behar dut"

Agirrek. Astelehenetik aurrera konfinamendua arintzeko fase berria hastekoa denez, egoera zerbait malgutuko den itxaropena du Agirrek. Durungaldeko beste hainbat herritar antzera bateko egoerak

bizi izan dira. Kasurik gehienetan ziurgabetasuna izan da nagusi.

Durangon, laguntzak

Durango Udalak zerbitzuak eskaintzen hasita dauden komertzioei gida egiten hasi da. Herrian negozioren bat duenak *bulegoteknikoa@durango.eus* helbidera idatzita jakinarazi dezake negozioa zabalik duela. Gida hori udalaren web orrian ipiniko dute ikusgai. ANBOTOn web orrian ere kontsultatu daiteke.

Bestalde, udalak aurreratu du Durango suspertzeko plan bat aktibatuko duela maiatzean. Komertzioei eta familiei laguntzeko, 420.000 euroko diru partida bat ipiniko duela iragarri du. Hurrengo egunetan, gobernu taldea oposizioiko kideekin eta herriko elkarteekin batuko da.



Elorrioko Balendin Berriotxo kalea.

430 positibotik gora

Edizio hau ixterako, Osasun Sailak oraindino argitaratu barik zituen koronabirus kasu berrien datuak. Astelehenean eta martitzenean ez zen kasurik baieztatu Durungaldean. Baina eguaztenean, oster,

hamar kasu positibo berri atzeman ziren eskualdean. Bost kasu Durangon, lau Zornotzan eta bat Mallabian.

Kopuruen gorakada horregaz, baieztatutako 430 kasuetara ailegatu zen Durangaldea.



JESUS IGNACIO GOMEZ

Durango, Ile-moztailea

"Zoramena izan zen; 110 bat dei jaso nituen ilea mozteko txanda hartzeko"

DURANGO • JOSEBA DERTEANO

Durango duen ile-apaindegia astelehenean berriro zabaldu zuenetik, Jesus Ignacio Gomez lanez lepo dabil.

Zelakoa izan zen ile-apaindegia zabaldu zuen eguna?

Astelehenean, ile-apaindegiko telefonoan 110 bat dei jaso nituen ilea mozteko txanda hartzeko. Zoramena izan zen. Emaztea ibili zen telefono deiak hartzen; bestela, ezingo nuen ilerik moztu. Ofizioan daramatzadan 30 urte baino gehiagotan ez zait astelehenekoaren moduko ezer gertatu. Kontuan hartu behar da, jakina, egoera berezia zela. Jendea zain zegoen.

Zein segurtasun neurri hartu dituzu?

Txandak aurretik hartzen ditugu, telefonoz, eta bezeroak banaka sartzen dira. Maskaragaz lan egiten dut beti, eta bezeroei ipini beharreko estalkia behin baino ez dut erabiltzen. Gero, denak garbitzen ditut. Gainerako tresneria ile-apaindegian bertan dudan makina batean esterilizatzen dut, egunean hainbat bider. Horrez gainera, bezeroak esertzen diren aulkia alkoholagaz garbitzen dut txanda bakoitza hasi aurretik.



MARTINE USABEL LIZUNDIA

Atxondo, Fisioterapeuta

"Tenperatura hartuta eta maskaragaz etortzeko eskatzen diegu pazienteei"

ABADIÑO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Hainbat segurtasun neurri hartuta, Abadiñoko Zaindaz fisioterapia zentroa zabalik dago astelehenetik.

Zein segurtasun neurri hartu dituzue?

Hitzordua ipini aurretik, pazienteari galdetegi bat egiten diogu telefonoz, eta dena ondo badago, kontsultara maskaragaz eta etxean tenperatura hartuta etortzeko eskatzen diegu. Kontsultara heltzen direnean, oinetakoak eta eskuak desinfektatzen dituzte. Saioa amaitu eta gero, dena desinfektatzen dugu: ohatila, aulkia, mahaia, esekilekuak... eta gainera, erabili dugun materiala zakarrontzira botatzen dugu. Toallaren bat erabiliz gero, segituan garbigailuan garbitzen dugu. Langileok ere hainbat neurri hartu ditugu. Uniformearen gainetik zabor poltsak ipintzen ditugu; baita pantaila, maskara eta eskularruak ere. Saio batetik bestera osorik desinfektatzen gara.

Horrela lan egitea ez da samurra izango.

Gogorra da, eta nahiko itogarria ere bai. Baina argi dugu neurri guztiak hartu behar ditugula pazienteen eta gure osasuna zaintzeko.

anboto

Bixente Kapanaga, 9
48215 Iurreta - Bizkaia
Tel.: 946 816 558
Erredakzioa: 946 232 523
Publizitatea: 946 217 902
publi@anboto.org

2020ko maiatzaren 8a
18. urtea - 806. alea

Lege gordailua:
BI-2268/01
ISSN:
1578-7028
Tirada:
12.000 ale

Zuzendaria: Jone Guenetxea Arrinda.
Erredakzio burua: Ekaitz Herrera Azkarraga
Administrazio burua: Itziar Belar Zubizarreta.
Administrazioa: Miren Abasolo Txabarri.
Publizitatea: Alazne Salcedo Artetxe eta Goretti Alonso Armendia
Erredakzioa: Aitziber Basauri Gandiaga, Joseba Derteano Bilbao, Maialen Zuazubiskar Gallastegi, Aritz Maldonado Zabala, Igor Galarza Intxausti.
Maketazioa: Bea Sierrasesumaga Guezuraga eta Nerea Azpiazu Beaskoetxea.
Zuzentzailea: Mikel Azkarraga Etxegibel.



Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du



EUSKO JAURLARITZA

GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak diruz lagundua

“Brasilen gaixo eta hildako kopuruak gora egin du eta krisi betean sartuko garela dirudi”

Brasilen okerrera heltzeko dagoela uste duen arren, Nahia Maldonado durangarrak modu positiboan aurre egin gura dio krisiari

BRASIL • JONE GUENETXEA-A.M.

Nahia Maldonado durangarra Brasil bizi da, Sao Paulo hirian. Hizkuntza eskola batean lan egiten du, irakasle. Hemen baino neurri lasaigoak dituzten arren, martxotik aurrera etxetik lan egiten dabil, koronabirusak eragindako osasun krisiak Brasilen ere gogor kolpatu du eta. Maldonadorekin ustez, datozen egun edo asteetan hango neurriak gogortu egingo dituzte. Hori iragarri dute behintzat hango telebistan.

Zelan daramazu konfinamendua?

Brasilen ez dute neurri zorrotzik ezarri. Egia esan, konfinamendua bera ere ez dute ezarri. Etxetik ez irteeta gomendioa da, ez derrigorrez egin beharrekoa. Ez da Euskal Herriaren moduan ehuneko ehuneko bete beharreko araua. Hala ere, niri egunerokoa goitik behera aldatu zait, baina nahiko ondo daramadala esango nuke. Lehen, ordu eta erdi behar nuen lanera heltzeko, eta orain bost minutu baino ez ditut behar lanean hasteko [barreak]. Lanean dena modu birtualean egiten dugu eta aurrez aurreko hartu-emanaren falta igartzen dut, baina, orokorrean, ondo daramadala esan dezaket.

Profesionalki, zelan eragin dizu egoerak?

Galdera hori zailagoa da erantzuteko. Esango nuke eragin handia duela gudan, baina baita ikasleengan ere. Krisialdi handi baten aurrean gaude. Eskolako bazkideetarikoa bat naiz, eta, beraz, irakatsi bakarrik ez, erabakiak ere hartu behar izan ditut. Etxean geratzea gomendatu


zuten unetik, hori egitea erabaki genuen adibidez. Honek guztiak gainerako irakasle eta ikasleengan duen inpakua ere aztertzen ari gara, erabakiak hartzeko. Egoera normal batean hobeto egongo ginen, baina ahal dugun heinean eurei laguntzen ere ahalegintzen gabilta. Diru sarrera baxuagoak

“**Lanean dena modu birtualean egiten dugu eta aurrez aurreko hartu-emanaren falta igartzen dut**”

izango ditugu, baina ez dugu inor kaleratu behintzat, eta ez dugu inoren soldatarik murriztu, bazkideona baino ez.

Alpaturiko konfinamendu neurri horiek berdinak dira Brasil guztian? Sao Paulo eta Rio de Janeiro dira estaturik kolpatuenak, ezta?

Ez dago neurri zehatzik, edo zorrotzagorik. Martxo amaieran luzatu egin zuten etxean geratzeko gomendioa. Sao Paulo ez da hiriburua, baina bai hiritarrik gehien biltzen duen hiria. Gomendio bera eman dute leku guztietarako: beharrezkoa denean baino ez irteeta kalera, eskuak sarri garbitzea, maskara erabiltzea... Orokorrean, esango nuke ez dela eskatutakoa gehiegi errespetatu. Orain artean koronabirusak ez du inpaktu handirik eduki, Brasilgo kopuruak kontuan hartuta, jakina; infektatu edo hil-



Nahia Maldonado Zabala

Irakaslea
Durango | 1992

dakoen kopurua ez da beste leku batzuetako moduko handia izan, baina orain kopuru hori gora egiten ari da eta badirudi krisi betean sartzen ari garela. Esandako moduan, gomendioak baino ez dira, baina gomendioei jarraitu ezean neurriak zorrotz egin beharko direla esan dute telebistan egunotan. Gobernatzailerak erabakitzen dituzte neurriak, eta alkateek ere badute aukera iritzia emateko.

Zelan dabil kudeatzen krisi hau Jair Bolsonaro presidentea?

Esan dudan moduan, gobernatzaile bakoitzak erabakitzen ditu estatu bakoitzean aplikatu beharreko neurriak. Ez dakit albisteak Euskal Herrira heldu zen ala ez, baina hemengo telebistan argi utzi zuen koronabirusa, bere ustez,

“**Lau urte daramatzat Brasilen, eta langabeziak behera egin du urtero; orain, gora egingo du**”

gripetxo bat baino ez dela. Eta ez dio behar den besteko garrantziarik eman. Behin hori esanda, zer eskatu diezaiokezu arazoari behar den garrantzia ematen ez dion pertsona bati? Ez dut esango egin duen kudeaketa ona ala txarra den, berak ez diolako behar besteko garrantzia eman; ez dio ezer. Beragaitik balitz, komertzio guztiak

zabalik egongo liratekeela esan du publikoki. Bere esku balego, batek daki zelan egongo ginen.

Honen ondoren, zer?

Ez dakit. Esango nuke egoera honetatik asko ikasiko dugula, bai pertsonalki eta baita profesionalki ere, nahiz eta orain zerbait negatibotzat ikusi. Ekonomikoki inpaktu handia edukiko du, eta horrek ere eragina izango du herrialde guztian; herrialdeak dituen helburu ekonomikoak ez dira lortuko, eta langabeziak ere gora egingo duela uste dut. Lau urte daramatzat hemen, eta langabeziak behera egin du urte hauetan. Orain, oster, gora egingo du berriro. Ahal den heinean, positiboki hartu beharko dugu datorrena, eta egoera berriari aurre egin.



Seguros Bilbao

**RUEDA BILBAO
ASEGURUAK
Jabier Rueda**

Landako etorbidea, 1 DURANGO

ORDUTEGI BERRIA: Astelehenetik ostiralera, 9:00etatik 15:30era

Zenbaki hauetan emango diogu lehentasuna bezeroari:
946 20 27 10 / 688 86 11 37

Egunero eskainiko dizugu gure arreta ondorengo helbidean:
jrueda@segurosbilbao.com

GAER

DESINFEKZIOAK

Mota guztietako intsektuak eta arratoiak hiltzen ditugu:

LABEZOMORROAK, INURRIAK, JANTZI-SITSAK, ARRATOIAK, ARKAKUSOAK, ERLEAK...

Iturritza, 42 - 2. ezk. - Tel./Faxa: 946 225 774 / 658 757 279 - BERRIZ



Xabi Etxeita
Gorrotxategi
Getafe taldeko futbol jokalaria.
Zornotza | 1987

Lehenengo egunetan, pentsatu nuen beharbada ez zela luzerako kontua izango eta prestakuntza ahalik eta zorrotzen eraman behar nuela. Gainera, Ligako dinamikan sartuta zaudenean, ez dituzu ariketa mota batzuk egiten, edo ez duzulako astirik edo lesionatzeko arriskua duzulako. Beraz, hasieran gorputzeko atal bat edo bestea indartzeko erabili daitezke ariketak. Hasieran erraz eraman nuen.

“**Jokatzen hasiko garela uste dut. Beste kontu bat da zer egingo duten koronabirus kasuren bat agertzen bada**”

“Lehenengo egunak gogorrak izango dira, baina gorputza ohitzen joango da apurka-apurka”

Lehenengo Mailako futbol jokalaria entrenamenduetara itzultzeko prest daude, segurtasun neurriak mantenduz

FUTBOLA • JOSEBA DERTEANO

Xabi Etxeita futbolari zornotzarra Getafe taldean dabil eta laster, asteburu honetan bertan beharbada, kirol-hirira joaten hasiko da entrenatzera. Segurtasun neurriengaitik, ez dira ohiko entrenamendu motak izango.

Zelan entrenatuko zarete?

Entrenatzen hasi aurretik, Ligak bidalitako protokoloa helarazi ziguten eta prestatzaile fisikoagaz bideokonferentziak egin genituen, azalpen denak jasotzeko. Hiru fase izango dira eta lehenengoan gaude. Orain, maskarak eta eskularruak ipinita joango gara kirol hirira. Han binaka entrenatuko gara. Zelai osoa lagun birentzat. Lehenengo faseko neurriak zorrotzak dira. Ondoren, bigarren fasean, aste batean edo bitan tokiren batean kontzentratu gura gaituztela uste dut eta han egingo ditugu entrenamenduak. Zortziko taldetan ibiltzea da asmoa. Hau da, zortzinaka hartu autobusa, zortzinaka entrenatu, eta modu berean itzuliko gara. Ondoren, nor bere egongelara joan eta han egongo gara hurrengo egunera arte. Janaria bertara ekarriko digute.

Zelai batean entrenatzera itzultzea denboraldi-aurrean egotearen modukoa izan daiteke gorputzarentzat?

Bai, gorputzak igarriko du. Itxialdian etxe inguruan baino ez naiz ibili korrika. Lehenengo egunak gogorrak izango dira, baina gorputza ohitzen joango da apurka-apurka. **Azkenaldian hainbat futbolari adierazi duzue ez zaizuela justua iruditzen koronabirusaren gaineko testak futbolarietara agortzea, beharrian handiagoa duten sektoreak daudenean.**

Jende asko egon da larri. Ez dakit zein den egoera gaur-gaurkoz, baina aurreko asteetan behin baino gehiagotan entzun dut sintomak dituen jendea etxean egoteko esan diotela, ez dagoelako aukerarik denei testak edo analisiak egiteko. Uste dut guri hiru egunerik behin egin gura zizkigutela testak, eta ez zait batere etikoa iruditzen guri hainbeste test egitea beste hainbat pertsona test horien beharrian daudenean.

Joaquin Caparrosek adierazi du Lehen Mailako taldeek azpiegitura handiak dituztela eta bazegoela aukera entrenamenduei modu seguruan lehenago ekiteko. Ikuspegi hori partekatzen duzu?

Osasuna da garrantzitsua, eta osasun arloko adituek esandakoari jarraitu behar diogu. Eurek badiote nor bere etxean egotea dela garrantzitsua birusari aurre egiteko,

horixe egin behar dugu. Protokolo batzuk mantenduta, bermeekin entrenatzeko aukera egon zitekeen, baina horretaz dakien jendeak dioenari jarraitu behar diogu, eurak direlako adituak. Gu ez gara inor gure aldetik beste aukera batzuk hartzeko.

“**Uste dut badagoela denbora partidu denak jokatzeke, baina ikusi egin beharko da egoera zelan garatzen den**”

Getafe sekulako denboraldia egiten zebilen geldialdiaren aurretik. Liga zer baldintzatan itzuliko dela uste duzu, eta zuri zelan itzultzea gustatuko litzaizuke?

Niri, eta jokalaria denoi esango nuke, liga amaitzea gustatuko litzaizuke, ahalik eta egoerarik egokienean beti ere. Jokatzen hasiko garela uste dut. Protokolo asko daudela eta estamentu guztiek jokatzea gura dutela iruditzen zait. Beste kontu bat izango da zer egingo duten koronabirus kasuren bat agertzen bada. Hau da, demagun

partiduak jokatzen hasi eta handik egun gutxira jokalariren batek positibo ematen duela. Orduan, zer? Edo talde bereko hiru-lau jokalariri gertatzen bazaie? Ez dakit egoera horri zelan aurre egingo dioten. Baina jokatzen hasi, hasiko garela uste dut; eta ia seguru harmailak hutsik daudela.

Jokatu bako partidu guztiak jokatzeke denborarik badagoela uste duzu?

Hamaika bat jardunaldi geratzen dira eta uste dut badagoela denbora dena jokatzeke. Edo hori itxaroten dut, behintzat. Ikusi egin beharko dugu egoera zelan garatzen den. Beharbada bihar beste zerbaite esan beharko dugu.

Etxean itxita egondako sasoiaren zelan eraman dituzu entrenamenduak? Txakur bat baino lagun hobea izan da arrabola?

Txakur bat edukitzea ere ez zitzaidan txarto etorriko, beragaz kalera irten ahal izateko! Nik, zorionez, toki apur bat gehiago dut etxean, gimnasio txiki bat ere bai, eta arrabolaz gainera, ariketa gehiago egin dezaket. Klubaren bitartez bizikleta estatiko bat ere lortu nuen eta oso ondo etorri zait. Izerdialdi bat botatzeko modurik onena da. Gorputzak eskatu egiten dizu.

Zelan aurre egiten zaio nagitasunari edo ezer ez egiteko tentazioari?

Denbora aurrera joan ahala, oster, gatzagoa da motibazioa mantentzea. Baina profesionalak gara, astero ariketen plangintza bidaltzen digute eta ahalik eta ondoen eutsi behar diogu sasoiari. Gainera, gure pisua zein den jakinarazi behar diogu egunero entrenatzaileari. Ezer egin ezik, pisuak gora egiten du seguitan.

Egunero jakinarazi behar duzue pisua?

Bai, egunero. Jose Bordalas entrenatzaileak garrantzi handia ematen dio pisuari. Egoera normalean ere, entrenatzera joan eta astean hiru bat bider baskulatik igaro behar izaten dugu.

Baskulak sustoren bat eman dizu egunotan?

Egia esanda, nahiko egonkorra naiz pisuan eta baremoaren barruan egoten naiz. Beste taldekide batzuei gehiago kostatzen zaie eta hor ibiltzen dira goizetan saunara sartzen eta antzerakoak egiten pisua jaisteko.

Itxialdian futbol txapelketa birtualak jokatzen ikusi ditugu futbolari asko. Zu horrelakoen zalea zara?

Ez askorik. Eta ez daukat kontsolarik. Gazteagoa nintzenean ordenagailuko bideojokoren batera zaletu nintzen, baina orain ez dut horretarako astirik. Etxean ume bi ditut.

Zelan mantentzen duzu hartu-eman hemengo senide eta lagunekin?

Bideokonferentzien bitartez. Gargardo bat eskuan, poteo eta solasaldi birtualak egiten ditut lagunekin. Zorionez, ondo dabilta denak, bai lagunak eta bai senitartekoak, eta egoera zein den ikusita, pozteko kontua da.



IURRETA *Tellitu-n*

3 logelatako 6 etxebizitza

2 logelatako 11 etxebizitza

Garajea eta trastelekua barne

ZARATE ELEXPE
E R A G I L E A K

Tel.: 946 816 673
www.zarateyelexpe.com



ANBOTOREN LAGUNAK

Euskarazko hedabideok mundua ikusteko modu propioa dugu, euskaratik eta euskaraz.

Orain, gure komunitatearen konpromisoa inoiz baino beharrezkoagoa dugu aurrera egiteko, euskarazko eta kalitatezko kazetaritza egiten jarraitu ahal izateko. Izan ere, bizi dugun egoera ekonomikoagaz **ANBOTO**ren jarduna kinka larrian dago.

Jarri ezazu zure alea euskarazko informazioa sortzen eta garatzen jarraitu dezagun, Durangaldea ezagutzen, bertan gertatzen denaren berri ematen eta gure ikuskera zabaltzen jarraitu dezagun.


ANBOTOren laguna izan gura duzu?

Urtean **30 euro** ordainduta, **ANBOTO** komunikazio proiektuari sostengua emango diozu.

Bidali mezua: anboto@anboto.org

Deitu: 94 681 65 58

Bete formularioa: www.anboto.org



"Toki komunikabideok abuztura bitartean 2,5 milioi euroko galera izango dugula aurreikusten dugu"

ANBOTOk zuzendaria izateaz gainera, Jone Guenetxea Arrinda (Abadiño, 1978) euskarazko tokiko hedabideak batzen dituen Tokikom erakundeko presidentea da

ANBOTO • JOSEBA DERTEANO

Tokiko hedabideek kezka begiratzten diote etorkizunari. Koronabirusaren krisiak sektore guztiak kolpatu ditu, eta hedabideena ez dela salbuespena izan dio Guenetxeak. Tokiko hedabideen diru iturri propioak ia desagertu egin dira. Txanponaren beste aldean, tokiko hedabideek egun hauetan izan duten audientzien igoera dago.

Zelan ari zarete lanean ANBOTOn?

Beste hainbat sektoretan legez, alar-ma egoera ezarri zenetik gure eguneroko lana nabarmen aldatu da. Bulegoan lan egiten dugunok etxetik dihardugu, telelanean. Paperari dagokionez, banatzaileen osasuna bermatzeko asmoz, etxerik etxeko aleen banaketa bertan behera utzi genuen. Orain, puntu estrategikoe-tan baino ez dugu banatzen, kiosko, janari-denda eta horrelako lekue-tan, irakurleek bertan jaso dezaten. Fasekako ibilbide honetan ohiko banaketari noiz heldu ahalko diogun aztertzen ari gara, banatzaileek behar dituzten babes neurriekin kalera irten ahal izateko.

Kazetaritzaren ikuspuntutik, zelan daramazue lana?

Gurea funtsezko jarduera izanda, ez dugu etenaldirik izan. Gainera, informatzeko bokaziotik, inoiz baino tinkoago eutsi diogu produkzioari. Herritarrei informazio fida-garria zintzotasunez helarazteko konpromisoa berretsi dugu. Albiste faltsuak geroago eta ugariagoak diren informazioaren mundu honetan, hedabideon lana oso beharrezkoa da. Krisi honek egunerokotasunean zelan eragiten dien jakin gura izan dute herritarrek, eta informazio hori eskuratzeko toki-komunikabideetara jo dutela uste dut. **Audientziek zenbat egin dute gora?**

Webguneko audientzia nabarmen igo da ANBOTOn, baita gainerako



tokiko hedabideetan ere. Krisiaren hasieran gaitzak gogorren jo zuen eremuetan egin zuen audientziak gora. Alearen (Araba) eta Geuriaren (Basauri) adibideak hortxe ditugu. Orokorrean, euskal hedabide guztion kontsumoak gora egin du Interneten. Tokikoon kasuan, TOKIKOMeko hedabide guztion trafikoa batuta %97ko igoera izan dugu iazko sasoi honetako datuekin alderatuta. Hau da, bisitak bikoiztu egin dira. Krisi aurreko audientziekin alderatuta, oster, %60tik gora egin du audientziak. Datu horiek ondo egindako lanaren adierazgarri dira. Tokikook argi erakutsi dugu funtzio sozial garrantzitsua betetzen dugula gure komunitateari informazio fidagarria helarazita. Nik neuk ere euskal hedabideon informazioa inoiz baino gehiago kontsumitu dut, eta irakurle legez aitortu behar

“

TOKIKOMeko hedabide guztion trafikoa batuta, %97ko igoera izan dugu iazko sasoi honetako datuekin alderatuta”

—

dut eduki benetan interesgarriak ikusi ditudala. Alde horretatik, pozik egon gaitezkeela uste dut.

Ikuspuntu ekonomikotik, krisiak zelan eragin du tokiko hedabideetan?

Oso kezkatuta gaude. Krisi honek sektore guztiak kolpatu ditu, eta gurea ez da salbuespena izan. Herritarrek geroago eta informazio gehiago kontsumitzen ari diren sasoi honetan, diru iturri propioak inoiz baino gehiago

murritu zaizkigu. Publizitatean kolpe handia jaso dugu. Kontuan izan publizitate aldetik tokiko hedabideok tokiko komertzioa-gaz lotura estua dugula. Publizitate eta zerbitzu salmentak minimoetara jaitsi dira egun batetik bestera. TOKIKOMeko bazkide diren 25 entitateok aurreikuspen bateratu bat egin dugu. Ikerketa horren arabera, tokiko komunikabideon fakturazioa %72 murritu da. Kasu batzuetan %80a ere heldu da. Toki komunikabideok abuztura bitartean 2,5 milioi euroko galera izango dugula aurreikusten dugu. Irailetik aurrera ez dakigu zer gertatuko den, baina ez gara oso baikorrak. Hala ere, beste egoera zail batzuk gainditu ditugun moduan, honi ere elkarlanean aurre egingo diogu.

Diru-laguntzetan izango duzue jaitsierarik?

Ez dugu jaitsierarik itxaroten. Hala ere, udalen batek izan dezake tentazioen bat, euren diru iturriak ere murriztuko direlako. Hala ere, inoiz baino gehiago da politika egiteko momentua, eta inork ere ez du zalantzarik tokiko hedabideen funtsezkotasanari dagokionez. Instituzio batzuek laguntzei eusteko borondatea dutela adierazi digute; Aldundiek eta Jaurilaritzak, adibidez. Zenbait kasutan, hiru urterako daude sinatuta laguntza horiek. Ez dugu murrizketarik itxaroten, ez genuke ulertuko. Badakigu instituzioentzat ere sasoi zaila dela. Hala ere, azken urteotan egonkortzera bidean eman ditugun pausoak kontuan izanda, laguntza horiei eustea itxaroten dugu. Gure diru-sarrerak hanka bi dituzte: sarrera propioa (batez ere publizitatea) eta diru-laguntzak. Sarrera propioak minimoetan egonda, instituzioek badakite diru-laguntzei eustea dagokiela. TOKIKOMeko hedabideek erakunde publiko guztien laguntzagaz kontatzen dute, eta laguntza denei eutsita ere erabaki drastikoak hartzera derrigortuta egongo dira hainbat euskal hedabide.

ANBOToren lagunen kanpaina martxan ipini duzue.

Urteotan gure komunikazio proiektua babesten duen ANBOToren lagunen taldea izan dugu. Badakigu ekonomikoki sasoi gataxela denontzat. Hala ere, talde horretako kide izan eta proiektua bultzatu gura duten herritarrentzat berriro ere martxan ipini dugu kanpaina. Urteotan ANBOToren inguruan eraiki dugun sareagaz oso esker oneko gaude. Aurretik ere egoera gatxei elkarlanean aurre egin diegu.

hitz
liburudenda

artekalea 23, durango
946 810 776
info@hitzliburudenda.com

Salmenta telematikoa

ESKAERAK

- e-postaz: info@hitzliburudenda.com
- WhatsApp-ez: 686 214 964
- Telefonoz: 94 681 0776 (8:00etatik 14:00etara)

ORDAINKETA

- Banku-transferentzia bidez.
- BIZUM bidez.

Bidalketa gastuak 4,90 € izango dira.

* fardelaren tamainaren eta pisuaren arabera aldaketa izan dezake



saltzan.com

Egoera berezi honetan
MAKALLAU SALTSAN
KATERIN zabalik dago!

Enkarguak egiteko edo informaziorako,
telefonoz edo **whatsapp** bidez gugaz
kontaktuan jarri:

688 773 205 / 688 734 329

#etorritadastau #unezailetanerezureondoa



Eguaztenean grabatutako saioko irudia, Bertsozale Elkartaren egoitzan egindakoa.

Villabonako arratsalde berotik Traña-Matienako jaietako iluntze freskoa epeltzera etorriko dira lau bertsolari gaur

Jaiak bertan behera gelditu ziren arren, urteroko bertso saioa grabatu dute Bertsozale Elkartaren egoitzan. Gaur iluntzean egongo da ikusgai

BERTSOLARITZA • IGOR GALARZA

Kamera atzetik minutu bateko isilunea eskatu zuten. Isiltasuna ozen entzuten zen. Bertsolaritzarentzat esperimentu berri bateko beste atal bati ekin behar zioten-eta protagonistek. Izan ere, gaur Abadiñoko Traña-Matienako auzoan bertso saio bat egon behar zen. Horren ordez, gaur kantatu behar zutenak Villabonan (Gipuzkoa) elkartu ziren. Euskal Herriko Bertsozale Elkartea, bertsolaritzarentzat lazgarria den egoerari buelta eman guran, hainbat herritan egin beharko lirakeen bertso saioak grabatzen ari da Tolosaldeko herrian duten egoitzan.

Babak eltzetik atera beharrean baitago bertsolaritza. Urte hasieratik 400 bat bertso saio antolatze bidean geratu direla kalkulatu du elkarteak. Joan zen asteburuan ekin zioten dinamikari, eta ordutik geratu barik dabilta grabatzen. Eguaztenean Traña-Matienako saioa grabatu zuten. Bertan ziren abesteko prest Maialen Lujanbio, Nerea Ibarzabal, Igor Elortza eta Txaber Altube. Azken biak, Durangaldekoak. Azkena, abadiñarra.

Momentu batez, Gipuzkoa eta Bizkaia artean muga bat sortu zen, eta gipuzkoarrek Durangaldekoek galdetu zieten ea zer moduz joan zen bidaia. Elkartzea bera lorpena zirudien. Altuberen sentsazioa arraroa izan zen: “Villabonan saiorik izan dudala galdetzen badidate, zer esan behar dut? Baietz ala ezetz?” Izan ere, lauretako bakar batentzat ere ez zen erraza izan Abadiñon egon barik Abadiñori buruz abestea. Bai-

Bertso saioa aurrera joan ahala, igarri zitekeen bertsolariek ez zituztela gogoko isiluneak

na saioa egin beharra zegoen, atzera bueltarik ez balego legez. Abestu aurretik, soinu eta argi probak. Bertsolaria ez dago ohituta irudia eta soinu horrenbeste zaintzera, baina ezohiko egoeratan ezohiko neurriak eta ezohiko argiak. Elortzaren eta Altuberen kasuan zailantza sortu zitzaion: “Bizkaieraz?

Ala batuan?”. Kameralariak ere adi detaile bakoitzari. Bertsolari bakoitzeko mikrofono bat zegoen. Zelan aukeratu non den bakoitza? Baten batek mikrofonoren bat ukituz gero, huraxe aukeratu behar. Saioak abantailaren bat badu, irisgarritasuna da hori, gura duenak gura duen lekutik ikusi dezakeelako saioa, ez abadiñarrek bakarrik.

Mikroari heldu, altu abestu

Saioari ekin behar zitzaion. Hasierako eskerrak eta agurrak ez ziren besterik barik joan. Bertsolariek egoera baliatu zuten saioa ikustea posible egiten duen guztia eskertzeko. Hasierako agurrekin gelako beroa eta saioaren hotza ahaztu zituzten. Kostata, baina buruari eragiten hasteko unea zen.

Lehenengo ariketan, herriko jaietan izaten duten nortasunaz abestu zuten. Bertsoari berari nortasuna eraldatu zaio San Prudentzioetan. Ondoren, lehenengo ofizioan, abadiñarra Euskal Herriko txapeldunagaz aritu zen abesten. Ez da lagun makala saio bati ondo ekiteko. Bertsoak igaro ahala, igarri zitekeen bertsolariek ez zutela

gogoko isilunea. Hasierako isilunea protokoloagaitik zelako, baina bertso arteko jenderik bako isiluneak are deserosoagoak bihurtu ziren. Bazirudien jendearen gutxieneko zarata horren beharizana zutela bertsolariek. Isiltasunean, Lujanbioren buruan argia piztu zen: “Galtzea ezinezkoa, irabaztea zaila”. Gai-jartzailea esaldi horregaz geratu da, baina bertso sorta osorik entzutekoa da.

Saioa ANBOToren webgunean, 'Bertsoa.eus' atarian eta udalaren jaietako webgunean emitituko da

Gaiak eta bertsoak jaietatik konfinamendura eta konfinamentutik jaietara saltoka aritu ziren. Egon zen tarteren bat gai arrarontzat ere. Ibarzabal markinarrak udaltzain lanak bete behar izan zituen, eta inguruko hirurei isuna ipini ala ez erabaki behar izan zuen. Elortza euskarazko telebista kanal liderragaz zer gertatzen ari

den deskubritu guran aritu zen, eta Altube, puntu erantzunen bitartez, Traña eta Matienaren arteko aldea azaldu guran txapeldun hernaniarrari. Saioa amaitu behar zen, gura zein ez, gai-jartzaileak ez zeukan-eta ezer gehiago prestatuta. Ordubetea aspaldi zen igarora, kamera aurrean zein atzean zeudenen azalen pleguetan hezetasunak eta izerdizko errekek bidea egin zuten. Orduan, bertsolariek puntuka hasi ziren, saioari amaiera bat prestatzeko asmoz. Barreak ez ziren falta izan tiki-taka kolektibo horretan.

Baina saio oro hasi eta amaitu egiten da, eta Traña-Matienakoa ezin gutxiago izan. Teloia jaiste-ko lau zertzelada. Aurretik, eta bigarrenaz, eskerrak. Kamera aurrereko eta atzekoei. Ez litzateke Abadiño Villabonara eramatea posible izango lanik eta gogorik ez balego. Gaur Traña-Matienan bertso saio bat egon behar zen, baina etxeetara eramango dute. ANBOToren webgunean, bertsoa.eus atari digitalean, eta Abadiñoko Udalak jaietarako sortu zuen webgunean egongo da ikusgai.



Tokiko hedabidea Tokiko dendetan

Krisi sasoi honetan, inoiz baino garrantzitsuagoa da informazio zuzena izatea. **ANBOTO**ko webgunean etenbako jarraipena egiten ari gara (anboto.org). Larrialdi egoera honetan paperean ere informazio kontrastatu eta fidagarria argitaratzen jarraituko dugu banaketa puntu hauetan:

ANBOTOren banaketa puntuak:

ABADIÑO / MATIENA

SOLOKOA (Goretti
janari denda) (Zelaieta)

**ARRIAUNDI
OKINDEGIA**
(Muntsaratz)

GOZOKARS
(Muntsaratz)

**PETITE PRENTSA
DENDA** (Matiena)

ATXONDO

KIOSKOA

BERRIZ

**ETXEBARRIA
ESTANKOA**

EGUN ON OKINDEGIA

DURANGO

**ETXEBARRIA
PRENTSA DENDA**

**IKERFER PRENTSA
DENDA**

OPEN SHOP
(Askatasun etorbidean)

**BIZKARRA
OKINDEGIA**
(Alluitz kalean)

**KIOSKO PRENTSA
DOMINGUEZ**
(Komentukalea)

GOZATU OKINDEGIA
(Ermodo 11)

**EGUN ON FRUTA
DENDA**
(San Ignazio auzunea 3)

**ALBERDI
OKINDEGIA**
(Zeharmendieta 7,
San Fausto)

ELORRIO

**ILLARGI PRENTSA
DENDA**

**ROSARIO CEA
FRUTA DENDA**

**MATZORRI
OKINDEGIA**

MAIRU DIETETIKA

IURRETA

**URKI PRENTSA
DENDA**

IURRETA KOPISTEGIA

MALLABIA

FARMAZIA

MAÑARIA

**BIZKARRA
HARATEGIA**

OTXANDIO

**KOROSTONDO
JANARI DENDA**

ZALDIBAR

IMENDIA

**OSTARGI
OKINDEGIA**
(Ogi berri)

ZORNOTZA

**BILLIKEN LIBURU
DENDA**

**AYERDI PRENTSA
DENDA**

**BIZKARRA
OKINDEGIA** (Gudari
kalean)

**BIZKARRA
OKINDEGIA**
(Jauregizahar kalean)

ANBOTOgaz informazioren bat partekatu gura baduzu:

✉ astekaria@anboto.org ☎ 688 63 50 41

"Gizonezko bat zarataka hasi zitzaidan astelehenean; profesionala nintzela eta entrenatu nintekeela azaldu arren, oihuka segitu zuen"

Kirolari profesionalak beharrera itzuli dira. Indarrean dagoen fase honetan badute entrenatzeko baimena. Irene Loizatek herriarren eta udaltzainen marmarrei aurre egin die

KIROLA • EKAITZ HERRERA

Astelehenetik posible duzu modu librean entrenatzea. Zelan joan dira lehenengo entrenamenduak?

Astelehenean arazoak izan nituen Abadiñoren eta Durangoren arteko mugan. 9:00ak inguru izango ziren. Astolarako bidegorrian, udaltzain batek ez zidan Abadiñora sartzen utzi. Profesionala nintzela azaldu nion. Erdian ipini zen eta handik inor ere ez zela pasatuko esan zidan, berdin ziola profesionala izan zein ez.

Abadiñoko ala Durangoko udaltzaina zen hori esan zizuna?

Durangokoa. Udaletxera jo nuen eta han azaldu zidaten bezperan eman zietela abisua udaltzainei. Hau da, goi mailako kirolariak garenok badugula entrenatzeko baimena eta posible dugula herrietatik zehar entrenatzea.

Izan duzu bestelako arazorik zure lana egiteko?

Bai. Astelehenean udaletxetik etxerako bidean ere izan nuen beste iskanbila bat. 10:30 inguru izango ziren. Gizonezko bat zarataka hasi zitzaidan gazteok etxera joan behar genuela esanez, 10:00ak pasatuta zeudela-eta. Berarengana joan eta kirolari profesionala nintzela azaldu nion, eta baimena nuela entrenatzeko. Ez ba! Gizonak oihuka segitu zuen. Akaso gizonek lortsabakoenagaz bat egingo nuen, batek daki!

Astelehen mugitua, beraz.

Bai. Martitzenean, ostera, dena lasai joan zen. Bizikletan entrenatu nintzen. Gernika aldetik ibili nintzen, baita Laida ingurutik ere. Arazorik barik.

Gidariaren batek egin al dizu arramuskadarik?

Astelehenean, Abadiñotik Eloorrionako errepidean, bai. Gidari bik bozina jo zidaten. Nire ondo-ondotik pasatu zirela sentitu



Martitzenean bizikleta hartu eta Laida inguruan aritu zen entrenatzen Irene Loizate.

"Badakit nire lana egiten ari naizela, baina tentsioak entrenamendua zapuztu dezake"

nuen, eta marmarren bat egiten zutela.

Aldean ziurtagiriren bat eraman behar izaten duzue entrenatzen ari zaretela frogatu ahal izateko?

Bai. Eusko Jaurlaritzaren Kirol Siletetik edo Espainiako Federaziotik igorritako baimen bat

dugu. Maila handiko kirolariak garela ipintzen du bertan. **Zure lana egiteagaitik seinalatua izan zaren sentipenik baduzu?**

Bai. Badakit nire lana egiten ari naizela eta badudala baimena; baina tentsioak entrenamendua zapuztu diezazuke.

Oraindik ez dituzu Anbotoko albisteak whatsapppe jasotzen?

Batu Anbotoko Whatsapp-era



Bidali ALTA

688 635 041

telefono zenbakira



anboto

Botikak	
BARIKUA, 8 - 09:00-09:00	ASTELEHENA, 11 - 09:00-09:00
SARRIA Sasikoa 17, DURANGO	NAVARRO Artekalea 6 - DURANGO
GUTIERREZ, IBAN Txiki Otaegi 3 - ZORNOTZA	RUIZ, JUAN El Alto-Bide Zahar 14 - ZORNOTZA
09:00-22:00	09:00-22:00
SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte poligonoa, 4 P8 - ABADIÑO	SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte poligonoa, 4 P8 - ABADIÑO
IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - ZORNOTZA	IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - ZORNOTZA
SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - ZORNOTZA	SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - ZORNOTZA
ZAPATUA, 9 - 09:00-09:00	MARTITZENA, 12 - 09:00-09:00
UNAMUNZAGA Muruetatorre 2C - DURANGO	ETXEBARRIA Montevideo etorb. 2. - DURANGO
GUTIERREZ, IBAN Txiki Otaegi 3 - ZORNOTZA	RUIZ, JUAN El Alto-Bide Zahar 14 - ZORNOTZA
09:00-13:30	09:00-22:00
CAMPILLO Montevideo etorb. 24 - DURANGO	SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte poligonoa, 4 P8 - ABADIÑO
SARRIA Sasikoa 17, DURANGO	IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - ZORNOTZA
DE DIEGO Intxaurrenondo 22. - DURANGO	SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - ZORNOTZA
NAVARRO Artekalea 6 - DURANGO	EGUAZTENA, 13 - 09:00-09:00
BALENCIAGA Ezkurdi plaza 8 - DURANGO	BAZAN DIAZ Urribarri 5 - DURANGO
BAZAN DIAZ Urribarri 5 - DURANGO	RUIZ, JUAN El Alto-Bide Zahar 14 - ZORNOTZA
JAIO-ABENDIBAR Errekakale 6. - ELORRIO	09:00-22:00
EGUREN, ISABEL Trañabarren 15. - ABADIÑO	SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte poligonoa, 4 P8 - ABADIÑO
MELERO, ROSA MARI San Pedro 31 - ZORNOTZA	IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - ZORNOTZA
IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - ZORNOTZA	SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - ZORNOTZA
RUIZ, JUAN El Alto-Bide Zahar 14 - ZORNOTZA	EGUENA, 14 - 09:00-09:00
09:00-14:00	DE DIEGO Intxaurrenondo 22. - DURANGO
IRIGOIEN Bixente Kapanaga 3 - IURRETA	RUIZ, JUAN El Alto-Bide Zahar 14 - ZORNOTZA
09:00-22:00	09:00-22:00
SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte poligonoa, 4 P8 - ABADIÑO	SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte poligonoa, 4 P8 - ABADIÑO
SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - ZORNOTZA	SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - ZORNOTZA
DOMEKA, 10 - 09:00-09:00	IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - ZORNOTZA
CAMPILLO Montevideo etorb. 24 - DURANGO	
GUTIERREZ, IBAN Txiki Otaegi 3 - ZORNOTZA	
09:00-22:00	
SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - ZORNOTZA	

Zorion Agurrak



GOZATU
GOZOTEGI-OKINDEGIA

Ermodo, 11. DURANGO
Tel.: 946 201 663
gozatudurango@gmail.com
facebook: Gozatu Gozotegia



Zorionak, **Lur!** Atzo, maiatzaren 7an, 7 urte egin zenduzan. Zenbaki borobila! Mosu handi bat familia guztian partez.



Zorixonak, **Asier**, zure 9. urtegunean (edo gehiau zien?) zure etxekuen partez! Zure egune disfrutau ta laster elkarregaz egongo gara!



Zorionaak **Izar!** Maiatzak 9an 7 urte eingo dozuz! Aurten ezberdin baina betiko lez oso ondo pasau zure egunien!!! Mosu haundi bat familiako danon partez!



Zorionak, **Izei**, maite zaitugun guztion partetik! Zelako arin bete dozuzen 5 urte eta zelango mutil handixe eginda zagozen. Baina guretzat beti izango zara mutiko txikixena. Argazkiko moduko pastel goxoaz eta ahalik eta ondoen pasa deizule zure egune. Mosu pilo handi bat zuretzat, txapeldun!



Zorionak Aiartzagaitia baserriko printzesari. Maiatzaren 1ean 6 urte egin zituen. Etxeko printzesa izanda seguru festa handi batekin ospatu zutela. Zorionak eta sei musu potolo lurretatik.



Zorionak, **Anertxo!** Egun zoragarri bat pasau eta disfrutau asko zure oparia. Ruben, Bego, Xabi eta Mirenen partez. Besarkada bat!!

Eguraldia

ZAPATUA 🌧️ 26° / 15°	ASTELEHENA 🌧️ 13° / 9°	EGUAZTENA 🌧️ 20° / 7°
DOMEKA 🌧️ 17° / 13°	MARTITZENA 🌧️ 12° / 8°	EGUENA 🌧️ 17° / 12°

BIBLIOTEKAKO EKINTZAK ONLINE

FAMILIA, HAUR-GAZTE ETA HELDUENTZAT



Iurreta
Eleizateko Udala
HERRI BIBLIOTEKA



MAIATZAK 5

IRAKURKETA KLUBA

17:00 "Eres como eres/
Melania Mazzucco"

18:30 "1362km euri /
Garazi Goia, Goizalde Landabaso"



MAIATZAK 15

MINTZOAN KUX-KUX

17:00 3-4 urte
18:00 5-7 urte
(Haurrak + familiak)

PARTE HARTZEKO: biblioteka@iurreta.eus

CERAMICAS MACOBER

ZERAMIKA ETA GRESA DEKORAZIOA ETA APAINKETA ERAIKUNTZAKO MATERIALA

1300 m² BILTEGI - 800 m² ERAKUSKETA *Etorri eta ikusi*

Eitua indust., 65 BERRIZ - Tel.: 946 827 890 www.macober.com

PLAZANBAZAN

www.plazanbazan.eus
Egilea: Garbine Ubeda (Aiorri)



Kaleko dantzariak

Aurki itzazu bi irudien artean dauden aldeak. Hamahiru dira guztira.



erakusmahaian. Zeintzuk dira bi elementu horiek?



Martxoko Sudokua

Osa ezazu sudokua, MARTXO hitza osatzen duten hizkiak (M, A, R, T, X eta O) ipiniz. Gogoratu, letra bakoitzak behin agertu behar duela zutabe, lerro eta area bakoitzeko.

	R	T	O	M	A
			R		
R		O			M
M			T		O
		R	X		
	O	X	M	A	

“Pozarren nago bizilagunek egin didaten aitortzarengaitik”

San Prudentzio bezperan auzoko pertsonaiaren saria eman eta dantzan egin zioten Kontxi Elexpuru Kareagari

ABADIÑO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

San Prudentzio jailetan herritar bat omentzeko ohitura dute abadiñarrak. Jai batzordeak urteko pertsonaia aukeratzen du, eta jaiari hasiera ematen dien Donien Atxa ipini aurretik saritu egiten dute. Aurten, abadiñarrak etxean ospatzen dabil-tza auzoko jaiak, eta hainbat ekin-tza bertan behera utzi behar izan dituzte. Hala ere, ez da ez jai girorik ez omenaldirik falta izan. Kontxi Elexpururi, esaterako, auzoko pertsonaiaren saria eman zioten bere bizilagunek apirilaren 27an.

San Prudentzio bezperan, bizilagunek auzoko pertsonaiaren saria eman zizuten. Itxaroten zenuen horrelakorik?

Egia esan, ez, ez nuen horrelakorik itxaroten. Pozarren nago bizilagunek egindako aitortzarengaitik. Izugarri estimatzen dut eman didaten sorpresatxo. Sari

“**Bizilagunen artean oso erlazio ona daukagu eta garai gogor hauetan hori ikusi da**”

bat eman eta dantzan egin zidaten; oso polita izan zen. Baina ez da izan egun hauetan egin didaten sorpresa bakarra. Apirilaren 30ean nire urteguna izan zen eta

“**Egunero balkoietara irtetzen gara, elkarren artean hitz egiten dugu, abestu eta baita dantzatu ere**”

orkidea bat ere oparitu zidaten. Oso eskertuta nago.

Auzotarren artean maitatua zaren seinala da hori.

Jainkoari eskerrak bizilagunen artean oso erlazio ona daukagu, eta garai gogor hauetan hori ikusi da. Nire ustez, horrelako garaietan ingurukoekin giro polita izatea ezinbestekoa da, eta gure auzoan argi geratu da hori badagoela. Egunero balkoira irteten dugu, elkarregaz berba egiten dugu, eta baita abestu eta dantzatu ere. Horrez gainera, egun hauetan hainbat postre egin ditugu: bizkotxoak, erroski-lak... eta gero ingurukoaren artean banatu ditugu. Helburua giro polita sortzea eta denok momentu atseginak pasatzea izan da.

COVID-19ak ekarritako alarma egoera honetan giro onean egoteak konfinamendua erraztuko du, ezta?

Dударик barik. Auzoan giro polita izateak eramangarriagoa egiten du dena, baita konfinamendua bera ere. Giro ona izateak poztu egiten du pertsona, eta hori ezinbestekoa da.

Zuen auzo inguruan hainbat gauza antolatu dituzue, Mozorro Eguna



Kontxi Elexpuru Kareaga

Abadiño | 1948

“**Sanprudentzioen bueltan egunero izan dugu zerbait auzoan, bizilagunek hainbat gauza antolatu dituzte eta**”

eta Aste Santuko prozesioa, besteak beste. Zuk denetan parte hartu duzu.

Kalera irteteko baimenik eduki ez dugunez, zerbaitetan denbora ematea garrantzitsua izan da. Beraz, antolatu diren gauza guztietan parte hartu dugu. Baliteke

adin egokia ez izatea horrelako gauzetarako, baina bueno, hortxe ibili gara balkoian (barrez).

Asteburu honetan ere hainbat ekin-tza egongo dira Traña-Matienan San Prudentzio jaien harira: tortilla eta paella txapelketak, besteak beste. Baduzu horietan parte hartzeko asmorik?

Badut esperantza, bai. Esan dizudan moduan, antolatzen diren gauza guztietan parte hartzeko ohitura dut. Jaien bueltan egunero izan dugu zerbait auzoan, bizilagunek denerik antolatzen dute eta. Joan zen asteburuan, esaterako, egun bitan bingoa izan genuen, eta egun bakar batean ere ez da muskarik eta giro onik falta izan.

Lau-hortza

Ainhoa Olaso Sopelana
Ikaslea



Asteak eta hamarkadak

Hamarkadetan ezer gertatu ez, eta aste batzuetan hamarkadak igarotzen direla esan zen behin, duela mende eta piku. Baten batek mende oso bat bezala bizi ditu azken hilabeteak. Etxean gordetzeko esan ziguten, non gordetzerik badaukagun galdetu gabe. Ordutik, Googlek eta Amazonek gure interakzio bakoitza datu bihurtu dute (inongo gardentasunik gabe, intimitatearen lehena-dia eta geroaren muga igaro dugula esango nuke).

Horizontalean, mesedez: Zorionak (Julene, Irati, Martin eta Katalin) eta ondo etorri (Gorka, Aitziber eta Haitz). Bakardade erradikalak. Eta bakardade erradikalaren ezinegonaren aurka albokoari eutsi direnak. Edo trapuari: denborak bere egin duen segundo bakoitzeko, hauts maluta bat. Blokeko eskailerak garbitzen dituenaren kubo zarata lehorrekin (kasik isil ostuka) akordatu gara zein ezberdinak diren gure bizitzak eta etxeetako leihoak. Testek baino protagonismo handiagoa izan dute pistolek. Ohiko lanorduan baino berrogeita bost ordu gehiago sartu dituztenen gibelak hazi egin dira derigor, eta kontraturik gabe zebilenaren tripak zimurtu, seguru.

Jaurilaritza, Iberdrola eta bankuetako iragarkiek, hamarkadetan banatuta bizitzera ohituta egon gara-ela erremarkatu digute. Martxotik, 13.500 langabe gehiago daude Hego Euskal Herrian. Normalitate berria berri-dazteko buruhaustea ez da estudianteen ameske-ria soil. Gehiegi daukagu irabazteko.

Hemen **iragarki laburrak** .eus eta online

iragarki laburrak .eus